



Igande honetan Andoaindik eta Urnietatik ehunka herritar abiatuko da Nafarroako Arakil aldera, erabakitze eskubidearen alde adierazteko

## Eskualdetik ehunka lagun abiatuko dira igandean giza-kate erraldoira

Andoaindik autobusez 400 lagun abiatuko dira, eta Urnietatik 200 inguru. Askoz gehiago joango dira, ordea. Erabakitze eskubidea aldarrikapen eta ospakizun bilakatuko dute igande honetan.

Antolatzaileak denbora luzez lantzen aritu dira igandeko eguna, nazio mailan nahiz herriz herriko batzordeetan. Ekimenaren ardatza herritarrak izango dira, horixe adierazi zuen iazko uztailean Anjel Oiarbide ekimeneko bozeramaileak, “Gure Esku Dago dinamika bat da, norabide berean jartzen dituen, erabakitze eskubidearen alde, Euskal Herriko norbanakoak eta eragileak. Zeregin horretan lanean dihardutenen batura bat da. Une historiko honetan, indarrak batu gabe, bakoitza bere aldeetik aritzea ez litzateke ulergarria izango. Behingoagatik, oinarrietan ados jarri, eta badatozen ekimen eredugarriak aprobetxatzen jakin behar dugu. Hortaz, elkartzera egin behar dugu, baina ez alderdi politikoak, baizik eta herritarrak. Eskozia, Katalunia, Ipar Irlanda edo Flandriako inertziak aprobetxatu behar ditugu, berrehun urtez demokrazian bizi diren ekimenez kutsatzeko”.



Irurtzundik gertu, Arakil aldean, eskuz esku lotuko dira Andoaindik eta Urnietako herritarrak.

Kataluniako “Via catalana” ekimenaren ildotik, euskaldunek Durango eta Iruñea eskuz esku lotuko dituzte 50.000 lagunetik gorako giza-katearekin. Igande honetan eguerdiko 12:00etatik 12:30etara Irurtzun herritik gertu giza-kate osoaren 102 eta 103. kilometroak beteko dituzte Andoaindik eta Urnietako herritarrek.

Nahi izate aldera egun osoko ospakizuna izango da, giza-katea amaituta Etxarri Aranatzeko bazkaria, jolasak eta kontzertua iragarri dituztelako.

Egun hauetan igandean bertan arazorik izan ez dadin garaioa, aparkalekuak eta logis-



**ANJEL OIARBIDE, GURE ESKU DAGO:**  
“Ekainaren 8an ikusiko dugu elkar. Hiru gauza aldarrikatuko ditugu giza kate erraldoian: herri bat garela, erabakitze eskubidea dugula, eta eskubide hori herritarrona dela”.

tika kontuak lotzen ari dira. Hitzordua “historikotzat” hartu dute dagoeneko, aurreko astean giza-katean parte hartze beharrezko den pertsona kopurua lortu dutela ziurtatu zutelako.

Igandeko lehen orduan Urnietako anbulatorio zaharretik eta Andoaindik Makaldegitik autobusak abiatuko dira Arakil aldera. Lehentasuna autobusek izango dute. Autobusari jarraituz, kotxean joateko aukera dago betiere ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean kilometroa ondo zehazten bada.

[ESKUALDEA, 2-3. ORRIALDEAK]

## Kirol Astea Andoainen asteburu honetan

[ANDOAIN, 11. ORRIALDEA]

### Txapela buruan



Leizaran eskubaloitako taldeko jubenilak eta Andoaindik Txirrindulari Eskolako kadete eta jubenilak.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]



## Euskadiko onenak Urnietan


Aurreko larunbatean kadete, junior eta elite mailako lasterketa burutu zen Urnietan.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

## Axeri dantza, entseguak

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

## Eskualdeko garapen agentzia Donostia-Beterri izendatzeko deia



Manuel Larramendi Bazkunak mozio bana aurkeztu du Urnietan eta Andoainen.

Buruntzaldekua eta inguruko herrietakoa ekonomia sustatzeko garapen agentziarik ez duen eskualde bakarrenetakoa de-

nez, Gipuzkoako erakunde ezberdinak elkarlanean hura sortzeko pausoak ematen hasi dira. Zirriborroetan Donostialdea-Mendebaldea Eskualdeko Garapen Agentzia izena erabiltzen ari direla eta, Manuel Larramendi Bazkunak mozio bidez izen egokiago baten bila abiatzea eskatu du. Proposa-

menak ere egin ditu, “Beterri” toponimoaren aldeko argudioak eskainiz: Beterriko Garapen Agentzia edo aukeran Beterri-Donostiako Garapen Agentzia izena erabiltzea. Urnietako eta Andoaindik Udal batzarrek ahobatez onartu dute proposamena.

[ESKUALDEA, 8. ORRIALDEA]





# Giza-katean parte hartzeko ordutegiak eta argibideak

Erabakitze eskubidearen alde agertzeko egun seinalatua iristear da. Aurreko igandean Galarretako jaialdian Anjel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko bozeramaileak giza-katerako gonbidapena

luzatu zuen: “Ekainaren 8an ikusiko dugu elkar. Hiru gauza aldarrikatuko ditugu giza kate erraldoian: herri bat garela, erabakitze-ko eskubidea dugula, eta eskubide hori herritarrona dela”.



## Bus zerbitzua

Basoa eta errepidea besterik ez da ikusiko Arakil aldean. Antolatzaileek autobusean bidaiatzeko aholkua luzatu zuten. Lehentasuna busentzat da.

### ANDOAIN. EKAINAK 8

**Autobusaren irteera**  
08:45 Makaldegia.

**Iritsiera 103. kilometroa**  
10:00 Trafiko eragozpenak saihesteko.

**Jaia Etxarri Aranatzen**  
Giza-katea amaituta.

**Itzulera Andoainera**  
Itzultzeko bi ordutegi:  
13:30etan eta 19:00etan.

### URNIETA. EKAINAK 8

**Autobusaren irteera**  
08:30 Anbulatorio zaharra.

**Iritsiera 102. kilometroa**  
10:00 Trafiko eragozpenak saihesteko.

**Jaia Etxarri Aranatzen**  
Giza-katea amaituta.

**Itzulera Urnietara**  
Itzultzeko bi ordutegi:  
14:30etan eta 18:00-19:00etan.



## Ibilgailua

Autobusak lehentasuna izango du igandean. Ibilgailuan gerturatzeko direnak antolatzaileek bideratuko dituzte gertuko apartakalera.

### ANDOAIN: 103. Kilometroa

**Ohar garrantzitsua**  
Paper batean argi eta garbi “103. kilometroa” idatzi behar du. Ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean txartel bana jartzeko aholkua luzatu dute.

### URNIETA: 102. Kilometroa

**Ohar garrantzitsua**  
Paper batean argi eta garbi “102. kilometroa” idatzi behar du. Ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean txartel bana jartzeko aholkua luzatu dute.

## Jana eta edana

Ura eta edatekoak eramatea ezinbestekoa da. 102 eta 103. kilometroak errepide erdian izango dira, edaririk hartzeko aukerarik gabe. Denbora dezentz igaroko da tokian bertan, eta beroa egin dezake. Adinekoei aukia eramateko aholkua luzatu diete.

Giza-katea amaituta, ospakizuna antolatu dute Etxarri Aranatzen.



## Metroaren agiria

Milaka lagunek giza-kate erraldoian parte hartzeko metroa eskuratu dute, 5 euroko prezioan. Parte hartuko dutenek ziurtagiriaren kopia jaso zuten, goiko irudian ikusten den modukoa. Urnietaren kasuan, bertako antolaketa taldeak ziurtagiria eramateko deia luzatu du.

### Zozketa

Urnietako Gure Esku Dago ekimenak Gazte festetan saskiaren zozketa antolatu zuen. Hainbat txartel saldu eta gero, irabazlea 372. zenbakiduna izan dela adierazi dute. Igande arratsaldean zozketa egin zen unean bertan agertu zen saskiaren irabazlea.



## Aholkuak

- “Haurrak badituzu, ez galdu! Zure telefono zenbakia idatzi haurrari”.
- “Etxeko animaliak badaramatzazu, lotuta eraman”.



## Ospakizuna

Ibilbidean barrena goizeko hamarrak inguruan hasiko da jendea biltzen. Antolatzaileek giza-katea “modu animatu eta ordenatuan” prestatu nahi dute. Parte hartzaileek eguerdiko hamabietan hasiera emateko soinu ozen bat entzungo dute, izan txalaparta, adar, kanpai edo beste soinuren bat. Ospakizun bat izatea nahi dute.

Giza-katea amaituta, Etxarri Aranatzen egun osoko egitaraua osatu dute. Bertan bazkari herrikoia, haurrentzat gunea eta ondoren kontzertua Vendetta, Xaiko eta Tximeleta taldeekin.



## Kamiseta

Ekimenarekin bat egiten duten kamisetak soinean jantzita eramateko aholkua luzatu dute antolatzaileek. Modulo ezberdinak badira, aukeran.





## “Gu bagoaz”



Joxemi Aranburu  
Andoain



Josu Lekuona  
Andoain



Ana Jandula  
Andoain



Lourdes Arteaga  
Andoain



Eneko Urdangarin  
Andoain



Roger Aira  
Andoain



Garazi Arribas  
Andoain



Koldo Leunda  
Andoain



Ion Mikel Barbado  
Andoain



## Via Catalanaren bidetik, Gure esku dago



Aurreko igande eguerdian Buntzaldeko eta Donostialdeko Gure Esku Dago taldeek kirol eta kultur jaialdia antolatu zuten Hernaniko Galarretan. Pilotariak, txalapartariak, bertolariak edota trikitilariak giroa berotzen aritu ziren. Ustekaberik handiena, ordea, Kataluniatik etorritako Castellars taldeak lortu zuen.

Ekitaldira eskualdeko Udal ordezkariak zabala hurbildu zen, tartean Mikel Pagola eta Maribel Vaquero Urnietako alkate eta alkate-ordea. Galarretan Anjel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko ordezkariak parte hartu zuen, iganderako gonbidapena luzatuz: “Ekainaren 8an ikusiko dugu elkar. Hiru gauza aldarrikatuko ditugu giza-kate erraldoian: herri bat garela, erabakitzeko eskubidea dugula, eta eskubide hori herritarrona dela”.



### Batzokiari eskertza

Galarretako jaialdian Tarragonako Nens del Vendrell castellars taldeak hartu zuen parte. Igande eguerdiko saioa amaituta, gorritz jantzita zetorren taldeak Urnietako Batzokian bazkaldu zuen.

Giro ederrean igaro zen bazkaria. “Topa egin” euskarazko adiera ikasi eta gero, euskaldunek eta katalanek denek elka-

rrekin topa egin zuten. Kataluniatik etorritako guztien izenaren ordezkari bat mahaitik altxa zen Batzokikoei esker ona adieraztera, “zorionak sukaldariei. Itzuliko gara!”. Hizketaldia amaitzeko “Visca Catalunya y Visca Euskal Herria Libre!” adierazi zuen, bertan zeudenen txalo eta oihuen artean.



HITZORDU UGARI OSTIRALETIK IGANDERA

# Gazte festak Urnietan

Uda gertu izan arren, jaietan izan zen berotasun bakarra festazalek eskainitakoa izan zen. Euriak hainbat ekitaldi tokiz aldatzera behar zuen.

Aurreko egunetan kirol erakustaldi eta haur ikuskizunekin Gazte festekiko giroa sortuz joan zen, asteburuan jai giroak goia jotzeko. Konturatzeko Sanmielak bertan izango dira.



Bosko Anitz txaranga, Gazte festetako eta beste hainbat ospakizunetako animatzaile Urnietan.



Mikel Pagola Urnietako alkateak piztu zuen jaien hasierako suziria.



Poxta Zahar gazte taldeak ekimen ugari antolatu zuen jaietan, tartean ostiral iluntzeko afaria.



Egape dantza taldeak, ohi bezala, saio ikusgarria eskaini zuen Gazte festen hasieran.



Urnietako Dantza ospakizuna kiroldegian egin zuten, goizen goizetik egindako zaparraden ondorioz.



Urnietako eta Gasteizko dantzariak parte hartu zuten, ehunka ikusle aurrean zituztelarik.



## Helduen heziketarako eskaintza berria

EPA-HHI helduen heziketa eskolak ikasteko eskaintza irekiko du laster Urnieta, Andoain, Hernani eta Astigarragako herritarrentzat. Besteak beste, helburuen artean daukate idazten edo irakurtzen irakastea, komunikazio trebetasunak hobetzea, norberaren ezagupenak gaurkotzea edota Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzea. Ekainaren 16tik aurrera matrikulazio epea irekiko dute, nahiz eta irailaren hasieran aukera berria egon.

Ikastaroak bi herrietan es-

kainiko dituzte, Hernanin eta Andoainen. Bietan ere eskaintza beretsua izango da: euskara, ingelesa, informatika, unibertsitaterako eta lanbide heziketarako sarrera proben prestakuntza edota atzerritarrentzat gaztelania.

Matrikulazioa doakoa da eta ikastaroak irakasle tituludunak eta espezializatuak eskaintzen dituzte.

Informazioa:

- Antziola, 62. Hernani. 943 33 53 18.
- Kale Nagusia, 4 B. Andoain. 943 30 40 21.

## Funky erakustaldia larunbat eguerdian

Ikasturte amaiera, kultur jarduera asko jendaurrean agertzeko garai aproposa izan ohi da. Musika eskolako ikasleek aurreko egun hauetan egin bezalaxe, Funky dantza ga-

raikideko ikasle gazteek larunbat honetan erakustaldia eskainiko dute Saroben. Estitxu Villanuevaren esanetara, 12:30etatik aurrera igoko dira taula gainera.

## Antzerki taldearen saioa ekainaren 15ean

Funky taldekoek asteburu honetan egingo duten bezalaxe, antzerki taldeko kideek ere ikasturteari taula gainean emango diote amaiera. Esketx ezberdinen bitartez "La Cita", "Autobusa", "Harrikadaka", etab- ikasturtean zehar landutakoa eskainiko dute.

Eskarmentu handiko antzezleak aritu dira Mikel Agirregomezkorta zuzendariaren esanetara. Ikuskizun ona es-

kainiko duten zalantzarik ez dago. Hauexek dira antzezleak: Gentzane Belaustegigotia, Koro Berasategi, Pili Brandariz, Guillermo Guridi, Juankar Erasun, Aritz Gonzalez, Conchi Gonzalez, Lupe Herrero, Julio Nogales, Xabier Odriozola, Isidro Salinas, Gentzane Unanue, Haritz Zubillaga.

Ekainaren 15ean antzezlan sorta eskainiko dute Saroben, iluntzeko 19:00etan hasita.

## Ikastaroak uda honetan

Saroben ez da hainbeste jendaurreko ikuskizun eskainiko. Eta, aldiz, ikastaro ezberdinak eskainiko dituzte hila-bete osoan zehar. Besteak

beste, pilates, yoga edota gimnasia hipopresiboa. Ikastaroak goizean nahiz iluntzean eskainiko dituzte, astean zehar. Info: 943 00 80 42.

## Landa eremuko baserri eta etxeen seinaleztapen lanak

Herriguneko landa-gunearen seinaleztatze lanak amaitu dituela iragarri du Udalak. Aurrekontu osoa 30.000 eurokoa izan da, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erdibana finantzatuta. Mantenu lanez arduratzen den Mikel Iraola Udal teknikaria-

ren arabera, "seinale mota Aldunditik arautua izan da espreski, landa gunetako errepideetan jartzeko. Aluminiozkoak dira, erreflektanteak, gauzez ere ikusi ahal izateko".

Lana Señales Girod S.L. enpresari esleitu zaio.

Seirehun ikusle inguru bildu zituen Pirritx eta Porrotxen saioak

## Bizipoza ikuskizuna Urnietan

**P**irritx, Porrotx eta Mari-motots pailazoek "Bizipoza" ikuskizuna eskaini zuten Urnietan, Iñistorra-Aiurrik Udalaren laguntzarekin antolatutako saioan. Urteak dira Urnietara ikuskizun berriena eskaintzera etortzen direla, eta aurtengoan ere hutsik egin gabe Urnietako eta Buruntzaldeko haurren aurrean aritu ziren dantzan eta kantuan. Deialdira ehunka haur eta guraso bildu zen, eta ohi bezala pailazoek dena eman zuten taula gainean. Panpoxa furgonetan bidean zihoazela matxura izan eta tarte horretan hainbat xelebrekeria gertatu zitzaizen. Ibilera eta abentura horiek kantuz eta istorioz eskaini zituzten, hainbat pertsonaien bitartez.

### ESKER ONA

Iñistorra-Aiurrik eskerrik beroena adierazi nahi die ema-



Ehunka ikusle hurbildu zen Egape ikastolako jolastoki estalira. Argazkiak eta bideoak ikusgai daude Aiurriko edizio digitalean.

naldia antolatzen laguntza eman zuten Udalari, Egape ikastolari, Katxiporretari, Iñistorrako bolondresei, sarrerak

saldu zituzten Amailur, Ametsa, Kantoi eta Ernaitza saltokiei eta nola ez ikuskizunera bertaratu ziren ikusle guztiei.

zerbitzua euskaraz  
eman nahi dizugu

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetgia erantzuteari eta parte hartu produktu kulturalak erosteko 50na euroko 3 bonoren zozketan



bete hemen  
galdetgia

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia





## Arregitarren liburutegia Larramendi Bazkunarentzat



Mikel Arregik eta Jon Unanuek hitzarmena sinatu zuten ekainaren 2an.

**P**edro Arregi Mendizabalek eta Benita Aranburu Zabalarren familiak XX. mendeko hainbat hamarkadatan barrena liburutegi mardula osatu zuten Ama Kandida etorbideko Eguzki-alde etxean. Liburutegi horretan denarik aurki liteke, zalantzarik gabe XX. mendeko hamarkada zailenetan -geraostekoetan- argitara emandako liburu gehientsuenak, baita XIX. mendeko libururak eta, jakina, XX. mendeko azken hamarkadetakoa. Gogoan izan behar da Pedro Arregik Andoain mailan gauzatu zen kultura, gizarte eta politika ekimen ugari bultzatzeaz gain, sostengu ekonomiko zabala eman ziola maiz, gehienetan itzalpetik edota baita halakoetan eragile gisa jardun zuen Eugenio anaiaren bitartez. Frankismoaren urte-

tan Eguzki-alde etxea politika, gizarte eta kultur alorreko eragile askoren bisita-leku eta bileira-leku zen, eta ez bakarrik bertan 20 urtez on Manuel Lekuona bizi izan zelako.

Beraz, arregitarren liburutegia XX. mendean zehar erdi mailako familia batek osa zezakeen liburutegiaren eredu da. Gainera, familiaren liburutegiari Rikardo semeak osatu zuen liburutegia erantsi behar zaio, hark pentsakeran mailan zituen ezinegon guztien isla garbia azaltzen duena. Emandako liburutegiak, denetara, 1781 liburuki ditu, 1537 arregi aranburutarren jatorrikoak, eta 244 Rikardoren liburutegikoak.

Emaitza hori Larramendi Kultur Bazkunaren esku uzteko hitzarmena ekainaren 2an sinatu zuten Mikel Arregik eta Jon Unanuek.

## Leitzako jaitsiera

Datorren ekainaren 15ean, igandearekin, Andoaingo **Santa Krutz** erretiratuen zentroak Leitzako jaitsiera antolatuko du. Irteera autobusez Olagain auzotik egingo dute goizeko 07:30etan, Leitzara 08:00etan iristeko. Antolatzailerak adierazi bezala, "bakoitza ahal duen erritmoan jaitsiko da eta arazorik balego laguntza eskainiko duen ibilgailua gertu izango da".

Bada irteeran parte hartzeko bigarren aukera: goizeko 09:30etan beste martxa bat auzotik irtengo da "Bixeraraino", berriro auzora itzultzeko. Bi ibilbideak egiten dituztenei Olagain elkartean salda, txorixoa eta haragi

egosia eskainiko zaizkie. 14:30ak aldera, 40 lagunentzako bazkaria antolatuko dute. Leitzatik nahiz "Bixeratik" jaitsi eta bazkarian parte hartu nahi dutenek ekainaren 11 baino lehen auzoko tabernan izena eman behar dute. Izena ematen duenak 5 euro aurreratu behar ditu, eta probaren amaieran itzuli egingo zaio diru hori. Bazkariaren prezioa, bestalde, 18 eurokoa da. Bazkarian parte hartzen duen bakoitzari zenbaki bat emango zaio eta bazkariaren amaieran honako saria jaso dezake: Urdaiazpikoa, txorizo eta saltxitxoi iberiar sorta. edota hiru ardo botila.

Ekainaren 11n Basteron Verdiren "Aida" eskainiko dute

## Jone Aldaz, Basteron operaz gozatu duen ikuslea

**E**rantzun ona eman diote andoaindarrek Opera Basteron eskaintzeko ekimenari. Hiru emanaldi eskaini dira, eta laugarrena, Giuseppe Verdiren "Aida" entzutea ekainaren 11n ikusi ahal izango da. Jone Aldaz emanaldi guztietan izan da, eta laugarren goan ere ez du hutsik egingo.

### Zer moduz joan dira hiru emanaldiak?

**Jone Aldaz:** Ederrak izan dira hirurak ere, *Madama Butterfly*, *Carmen* eta *Turandot*.

Benetan pribilegio bat da opera Andoainen ikusi ahal izatea!

Egia esan, eskertu egin behar zaie opera gugana ekartzea otu zaien kultur programatzaileei. Nik uste, jendearen erreakzioa probatzeko antolatu zituztela lehen bi emanaldiak; operazale askok bide horretatik segi zezaten eskatu genieenez, ausartu egin dira hurrengo biak antolatuzera.

Publizitate gutxi egin arren jende ugari hurbildu gara Basterora, eta beraz, iruditzen zait alderdi hori mugitzen badute, ahoz ahokoak gainerakoa egingo duela. Operak badauka etorkizuna Andoainen, baldin eta benetako apustua egiten bada behintzat.

### Operak ez al du galtzen zuzeneko edozein ikuskizunak daukan xarma, pantailan pelikula baten moduan proiektatzen den une beretik?

**J.A.:** Inolaz ere ez! Pantaila handian, zinean bezala sentitzen zara, eta gauzak aurre-aurrean eta garbi-garbi ikusten dituzu. Oso grabazio onak dira, kamera askorekin filmatu eta gero muntaia txukunen ondorioz. Opera, era horretan, zuzenean baino hobeto ikusten



Jone Aldaz, Basteroko atarian.

*"Ez da zertan aditua izan behar, operaz gozatzeko. Tarte atsegina igarotzen dut eta hori da garrantzitsuen"*

dela esatera ausartuko nintzateke! Izan ere, dena daukazu alde: kantarien lehen planoak ikusten dituzu, atsedendaldi hila moztu egiten dizkizute, primerako soinuaz gozatzen duzu. Eta gainera hori guztia nahiko ez eta azpittuluak daukazu istorioaren haria jarraitzeko; ez baita ahaztu behar operak, normalean, italiaraz, frantsesez edo alemaniaraz abesten direla...

### Emanaldi formato honek, agian, operari betidanik itsatsi izan zaion kutsu elitista ken diezaioke...

**J.A.:** Baietz esango nuke. Orain arteko errealitatea da zaleek urrunera (Donostia, Bilbo...) joan behar izaten dutela, eta oso noizean behin gainera, opera edo zarzuela zuzenean ikusi nahi izanez gero. Sarrerak ere ez dira edozein patriketara egokitzen...

Eskura-eskura jarri digute opera, eta orain da zuzentzen hasteko aukera gizarte joera historiko horiek. Opera gizarte klase pribilegiatu baten kutixia den ustea ezabatu egin beharko genuke. Zenbait pertsonari gomendatuko nieke aurreiritziak uxatu, eta proba dezatela Basterora etorrira. Probatu ondoren, eta ez lehenago, esan daiteke gustatzen zaigun ala ez. Ez da zertan opera aditua izan behar, gozatzeko. Nik ez dut gauza handirik entenditzen, baina tarte atsegina pasatzen dut, eta hori da garrantzitsuen azken batean.

### Zeuren zaleto zinen operara?

**J.A.:** Orain urte piloak, RTVEN Zarzuela emititzen zuten larunbatero, eta telebistari pegasa eginda egoten nintzen. Zarzuelako obra izugarri politak izaten ziren. Orduan hasi nintzen musika eta kantua estimatzen. Musika genero guztiak ditut gogoko: rock-a, popatik, txistua... Basteroko emanaldi gehienetara hurbiltzen naiz. Beti ateratzen naiz pozik kontzertuetatik, musikari guztiek baitaukate zer erakutsia eta zer esana.

## Sanjuanetako Kartel lehiaketa

Hauexek aurtengo irabazleak.  
1. maila: 1. Juan Manuel Garrido.  
2. saria: Garazi Usandizaga.  
2. maila: 1. saria: Mainer Arabaolaza.  
2. saria: Mikel Amenabar.

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanen eta ikastaroetako ikasleek egindako lanen erakusketa Urigainen, ekainaren 20tik 28ra. Sari banaketa ekitaldia, ekainaren 22an.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



MARKINA-XEMEIN, ZALDIBIA, AÑORGA, LIZARRA ETA VILLABONAKO DANTZA ETA MUSIKA TALDEEN PARTE HARTZEAREKIN

# Haurren euskal jaialdia

Euriak ere bere tokitxoa hartu nahi izan zuen Andoaingo haurren euskal jaialdian, baina ez zuen egun handia zapuzterik lortu. Markina-Xemein, Zaldibia, Añorga, Lizarra eta Villabonako dantza eta mu-

sika taldeek, Urki taldearekin batera, dantzaz eta musikaz jantzi zuten jaialdiaren 26. edizioa. Antolatzaileek esker ona adierazi nahi diete Udalari, parte hartu zuten taldeei eta guraso eta herriko elkartei.



Euria egin zuen gogotik goiz partean, eta dantzariak aterkiekin ibili behar izan zuten.



Kristina Solanoren trikiti taldeak ere parte hartu zuen jaialdian.



Trebezia erakutsi zuten dantzari txikiak, euskal dantzak dantzatzerakoan. Argazkian, Markina-Xemeingo taldea.



Talde batzuk dantzatzen zuten bitartean, besteak ikusle gisa egon ziren goizeko saioan. Irudian, Andoaingo dantzari txikiak.



Urki dantza taldeko gurasoek gogor jardun zuten herriko elkarteetan, kanpotik heldutako haurrei bazkaria prestatzeko lanetan.



Kalejirarako gogoa eta umore giroa nagusitu ziren arratsaldeko saioan.



GARAPEN AGENTZIAREN IZENDAPENAREN HARIRA, LARRAMENDI BAZKUNAK PROPOSAMENA LUZATU DU

# “Donostia-Beterri”ren alde

Jardueraren arabera, Andoain eta Urnieta eskualde ezberdinean kokaturik daude. Eta bat egiten duten horietan identifikaziorako izena ere ez dago batere garbi. Eskualde honetakoa kasu bakana da

Gipuzkoan, eta Manuel Larramendi Bazkuna euskara elkarteak argitasuna ekarri nahi izan du udalerrietan aurkeztu duen mozioaren bitartez.

**B**easain Goierriin dagoela ondotxo dakite gipuzkoarrek, Arrasate Debagoienan edota Oorereta Oarsoaldean dagoen bezalaxe. Baina Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria edo Hernani zein eskualdetan dauden jakitea ez dago oso garbi. Azken hamarkadan Buruntzaldea izenak indarra hartu du, bereziki Udal mailan esparru ezberdinetan elkarlanean egin den lan handiari esker.


Donostialdetik gertu dauden bost herri hauek, ordea, hainbat jardueretan bereiztuta agertzen dira. Hondakinei dagokionez, Urnieta San Markon kokatu zuten eta Andoain Tolosaldean. Turismoari edota enpleguari dagokionez, bi udalerririk eta beste batzuk gehiago Donostialdean txertatuta daude.

Ekonomia sustatzeko garapen agentziarik ez duen eskualde bakarrenetakoa denez, erakunde ezberdinak elkarlanean hura sortzeko pausoak ematen hasi dira. Zirriborroetan *Donostialdea-Mendebaldea Eskualdeko Garapen Agentzia* erabiltzen ari direla eta, Manuel Larramendi Bazkunak mozio bidez izen egokiago baten bila abiatzea eskatu du. Proposamenak ere egin ditu, “Beterri” toponimoaren aldeko argudioak eskainiz.

## MOZIOAK URNIETAN ETA ANDOAINEN

Aurreko asteko asteartean eta ostegunean, Urnieta eta Andoaingo Udal batzarraldietan hurrenez hurren, toponimoaren mozioa aztergai izan zen. Eta bietan ere Larramendi Bazkunak proposatzen duen *Beterriko Garapen Agentzia* izenaren alde egitea erabaki zuten.

Mozio horretan agertzen den argudioetan izendatzeko garaian izandako utzikera aipatzen da, “eskualdeen banaketa eta izendatze kontu honetan utzikeria izan da. Une jakin batean Tolosaldea, Donostialdea, Buruntzaldea ‘-alde’ atzizkiak osaturiko toponimoez irtenbidea eman nahi izan baitziztaion. Irtenbide horrek, baina, galduriko toponimo zahar batzuen gainera lur gehiago bota besterik ez zuen egin, horien



artean Beterri izeneko ezkutu utziz guztiz. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak gogor heldu zion orain 23 urte Beterri izena berreskuratzeko ahaleginari. Ahalegin horrek izan du emaitzarik, baina ez izena berriro herritarren ahotan jartzerainokoa. 1994. urtean sortu zuen Aiurri aldizkariari, Beterriko aldizkaria ordain jarri zion eta geroztik ugari izan dira Beterri eskualdearen izenaz bataiatu dituen ekimenak (*Beterriko Liburuak* literatur aipamena, *Beterriko Bertsolari Txapelketa*...). Oso garbi izan genuen sortzeko une bereetik gure jarduneko herri guztiak ezer osatzen baldin bazuten hori Beterriko eskualdea zela”.

Tesi hori defendatzeko iturri historikoetara jo du. Manuel Larramendiren *Corografía de Guipúzcoa* obran (1756), esaterako, zera adierazten da: “*Todos estos pueblos de Guipúzcoa tienen otro modo de división en tres distritos: goyerri, beterrri, costaldea o ichasalde. El distrito desde Tolosa hasta Irún se tiene*

*Urnieta eta Andoainen “Beterriko Garapen Agentzia” izenaren alde egitea erabaki dute*

*por beerri o beterrri; y quiere decir país bajo o tierra inferior de Guipúzcoa”.*

Euskaltzaindiak berak Donostia-Beterri deituriko eskualdea onartuta dauka bere izendegian. Gauza jakina da, ordea, Andoainek elkarrekiko zerbitzu jakin batzuetarako Tolosa aldera egin izan duela eta, beste batzuetarako, berriz, Hernani aldera. Gaur egun ere, zerbitzu batzuk Tolosaldean garatzen ditu (ura, zaborrak...), baina ekimen berri guztietan Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil eta Astigarragako udalerrietan bat egin du azken hamarkada hauetan eskualdea osatzeko garaian.

Andoainek, egitez, etorkizunari begira, jada egin du Donostia-Beterri eskualdearen aldeko hautua, orain ibili badabilako eskualde mailako garapen agentzia antolatuta nahian,

Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Astigarraga eta Usurbilekin batera. Delako agentzia hori bataiatzeko garaian eskualdearentzat erabili duten lehenengo izena –zirriborroetan baina– *Donostialdea-Mendebaldea Eskualdeko Garapen Agentzia* izan da, edo antzekoa; bai behintzat eskualdea izendatzeko *Donostialdea-Mendebaldea* toponimo osatua. Bazkunarentzat izen hori astakeria da, “begirune osoz diogu, baina astakeria eta ez nolanhikoa. Gure iritziz Beterri toponimoak beharko luke nagusi eskualdea izendatzeko garaian. Badakigu jakin, gaur egun hainbat arrazoiengatik Donostia toponimoa lehenesten dela, toponimo horrek duen mota orotariko erakargarritasunagatik, nazioartean dela (San Sebastián), Erkidego mailan edo Estatu mailan, baina toponimo historikoki jatorria Beterri da, geografikoki eta orografikoki eskualdea zer den azaltzen duena eta bere osotasunean edo zati batean izendatzeko erabili beharko litzatekeena, gure iritziz”.

## ANDOINGO MOZIOAK BERE BAITAN JASOTZEN DUEN ERABAKIA:

“LEHENIK.- Andoaingo Udalak onartzen du, hiri-argiria jaso izanaren IV. mendeurrenaren ospatzeko bezperatan, Andoaingo herria eta udalerririk Donostia, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil Lasarte-Oria eta Orioko udalerririk eta herriekin batera Euskaltzaindiak DONOSTIA-BETERRI izena emana dion eskualdean kokatzea, eta, horrenbestez, erabaki hau aintzako hartuko duen eskualde mugaketa onestea, Gipuzkoako Batzar Nagusiei eta/edo Foru Aldundiari eskaera luzatuz, inoiz Lurralde Historikoko eskualde mugaketa aztertu eta onartuko balute, Andoain udalerririk aipatu eskualdean koka dezan, Udal honen nahia eta erabakia betez.

BIGARREN.- Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Astigarraga eta Usurbilgo Udalekin batera eratze bidean jarri duen eskualde mailako garapen agentziari BETERRIKO GARAPEN AGENTZIA izen ofiziala eman dakion proposatzea beste Udalei, eta Donostia izena agentziarenean jasotzea ezinbestekotzat jotzen baldin bada, BETERRI-DONOSTIAKO GARAPEN AGENTZIA aldaera onartzea, hiriburuari zorzaion begirune osoarekin baina herri guztiak biltzen dituen eskualdearen izena lehentsez, hiriburuaren guztiz jan ez dezan”.





FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Hauteskundeak emaitzak

**E**uroparako hauteskundeak igaro dira eta, trenan abian da. Ez da jende askorik, ugaria izan baita abstentzioa. Ni bertan noa lehengo igandean, dago-kidan eskubidea erabiliz, nire hautua egin nuelako. Dena den, etxean geratu direnei ere nire errespetua, nor bere erabakien jabe baita.

Igandean geroztik, asko eta zabal hitz egin da emaitzei buruz. Honek hainbeste bozka galdu dituela; besteak askoz gehiago. Irabazleak ere harro agertu dira eta hasi dira iragarpenak datozen Udal eta Foru Aldundirako emaitzak nondik nora joanen diren zehaztuz. Argi dagoena da ezin daitezkeela hauteskunde batzuk eta besteak alderatu, herritarrek ez baitute berdin pentsatzen eta erabakitzen. Baina, gustuko dugu joko hori eta ondo dago, nahiz eta zenbaitetan komunikabideek aspergarri bihurtzen diren. Eztabaidak ere, gehientsuenetan maila orokorrean mugitzen dira, eta ez dute ezer berririk esaten. Baina tira.

Egia da, ordea, igandeko hauteskundeak, orokorrean, astindua sortu dutela. Eta ez nolanahikoa! Bi alderdi nagusiek, bipartidismoa deitzen den hori, hankaz gora jarri dela diote eta ni, behintzat, pozten naiz. Antza, eurek egindako ustelkeria-tropelkeriek jaso dute bere ordaina. Bazen ordua! PPK asko galdu du eta PSOEk zer esanik ez. PPK ez du autokritikarik egin baina, PSOEk jaso dituen emaitzekin burua hanka tartean sartu eta desertuko bideari ekin dio: Kongresua, primariak etab. Jakina, hemen Euskal Herrian ere kolpe latza jaso dute, eta kargu uzteak abian dira. Eta hori aitortzea eta erabakiak hartzea, esan beharra dago, ez dela gutxi. Alderdi nagusi horien kaltetan beste batzuk jaino dira eta indar handiz jaino ere! Egia da, halaber, horiei bozka ematen zien asko eta asko etxean geratuko zirela, baina zorionez sortu dira berriak. Eskuin-eskuinetik ez da hemen sortu Europako iparraldean eman den gertakirik; han eman dena, Frantzia adibidez, beldurtzekoa izan baita. Harridura sortu duenetako alderdi "Podemos-Ahal dugu" izan da. Garbi dago alderdi horretara jo dutenak ezkeriak direla, eta zer pentsarazi emango diela alderdi nagusiei. Ezker Anitzak ere jaso ditu seguruenik ezkerreko zenbait bozka, eta bide egokia da hori ezker bidea sendotu eta indartzeko. Zalantzarik gabe Ahal dugu plataforma, egoera politiko honetan, guztien andregai bilakatu da, andregai maitatua eta gorrotatua, noski. Ez dakit eskubiko komu-

nikabideak irakurri eta entzuteko aukerarik izan duzuen; zenbaitetan ondo dago, baina emagalduta baillitza jarri dute. Ezkerak, aldiz, piro-poak jaurti dizkio eta sedukzioa landu dute. Jakingo ahal du jaso duen indar eta energia olatu hori kudeatzen, eta aurrean duen bideari ekitoko bidelagun onak aukeratzen.

Honen ildotik, eta Euskal Herriari gagozkiorik, badirudi nazionalistak jabetu direla eta PSOE-PP maldan behera jaurti direla. Jakina, kontuan hartu behar da, Estatu mailan bezala, Ahal dugu hemen ere Euskal Herrian hainbat bozka lortu dituela. Eta gauza xebreak irakurri ditut, esaterako, Donostiako Udalaririk, datorren hauteskundeak kontuan, noski. Badirudi EH bildu eta EAJ jarriko lirakeela lehenengo bi postutan. Eta, sozialista batek zioen EH bildu, Ahal dugu eta beraiek osatu deza-keetela horrelako ezkerreko estrategia bat. PSOEk egin ber duena lehenik eta behin, nire irudiko, hausnarketa sakon bat da. Programa eta aurrepegiak aldatu eta benetako alderdi ezkeriar bat bezala agertu. Eta, noski, interesgarria litzateke, eta nire gustukoa, erakundeetan alderdi horiek alternatiba berrizale eta ezkeriarra sortzea. Bana kontuz! PSOEk Euskal herriarekiko duen jarrera aldatu behar-ko luke eta gutxienez, esaterako, erabakitzeko eskubidea onartu. Badirudi, Podemos prest dagoela horretarako. Ez nuen gutxiago espero. Oraingoz, itxaropen argia piztu da; ikusi egin behar nola gauzatzen den. Lasai hartu behar dira gauza hauek ezen gure bizitza badoa bere bidetik. Iku-siko da!

Gaurko zutabe hau bukatu aurretik, datorren igandeko "Gure Esku Dago" giza-kateari lerro batzuk eskaini nahi nizkioke.

### NI ERE BANOA

Saiatu naiz zutabe honetatik bertatik ekimen honi buruz nire hausnarketak egiten. Eta zenbait komunikabideetan eta, Aiurri bertan, galdera egin denez: "Ni banoa, eta zu?" Urkoren abestiaren antzera. Ba Ni BANOA. Eta banoa ekimen demokratiko bat delako; aspaldidanik hori defendatu dudalako eta, hori dela eta, irainak ere jaso ditudalako. Eta banoa, sentsibilitate desberdientetako herri-tarrak doazelako. Eta, nola ez, antolatzaileek lan ederra, txukuna eta irekia egin dutelako. Zutabe honetatik zorionak eman nahi dizkiot, batik bat, Urnietako taldeari nahiz eta ni donostiarekin joan.

Arrakasta izan dezala eta hor sortzen den energia aurrerantzean ongi kudeatzen ikas dezagula, sektore-riarik eta botere lehiak kutsatu gabe. Bertan ikusiko dugulakoan, aurrera giza-katearekin!

Asteburu osoan zehar ekitaldi gehiago antolatuko dituzte

## Kultur astea Extremeñoan



Extremaduraren kulturaz eta nortasunaz dakitena marrazkien eta idazlanen bidez azaldu zuten gaztetxoek.

**K**ultur astea martxan dago Hogar Extremeñoan. Jar- duera gehiago asteburu honetan burutuko dira, tartean folklore jaialdia Basteron.

**Ekainak 6, ostirala. 20:00.** Triana, Erketz, Amaya Gonzalez dantza akademia eta La Flor del Tomillo taldeen ikuskizuna Basteron.

**Ekainak 7, larunbata. 11:00.** Egoitzan miga, toka eta bote txapelketak.  
**Ekainak 8, igandea. 11:00.** Areto futbolak.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEKO GIPUZKOAKO HERRIEN %70a EZ DA ARI DA LANEAN.**

\* 10.000 biztanle baino gutxiagoko 40 herri, kolektiboki lan egiten ari dira tokiko berdintasun politikak garatzeko, Berdinbidean programaren barruan.

\*\* 21 herri parte hartzen ari dira Gipuzkoako Berdintasuneko Teknikarien Sarean.

\*\*\* 3 herri eta mankomunitate bati lagundu zaie tokiko berdintasuneko teknikariak kontratatzen: Azkoitia, Tolosa, Ordizia eta Urola Garaia (Ezki-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga).

\*\*\*\* 16 udal eta mankomunitate bateko tokiko berdintasuneko 30 proiektu garatzen laguntzea, diru laguntzen urteko deialdiaren barruan.





## KIROL ALBISTEAK

# AKEK gimnasia erritmikoa lantzen duen taldea

**A**ndoingo AKEK gimnasia erritmikoa taldeak denboraldi oparoa izan du aurrengo, izan ere, maila ona dutela erakusteaz gain, Gipuzkoa mailako podiumetara iristea lortu dute. Infantilek Udaberriko torneoan hirugarren postua lortu zuten eta kadeteek, aldiz, lehene-goia. Seniorrak Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua lortu zuten, bakoitzak bere aparatuan. Jubenilek, bestalde, B kategorian hirugarren postua lortu zuten eta Euskadiko txapelketarako sailkatu dira. Gainera, bakarka ere kide batzuk lortu dute txapelketarako sarbidea.

Euskadiko txapelketa larunbat honetan izango da Durangon. **Iratxe Irastorza** jubenilak dioenez, kurtso osoan egon dira txapelketarako prestatzen: "Urrian hasten gara entrenatzen eta lehenengo lehiaketa otsailean izaten dugu. Bertan egindako akatsak konpontzen saiatzen gara gero eta martxoan izaten dugu bigarren lehiaketa. Finala maiatzean izaten da eta podiuma lortu genuenez, Euskadiko txapelketara igarotzea lortu dugu". Aurten, kurtso osoa lehiaketara begira egon ostean, amaieraraino iristea lortu dute gazteek eta ondorioz,



Maialen Arano eta Iratxe Irastorza gimnastak, Goikoplazan.

kurtsoan zehar botatako izerdiak merezi izan die jarritako helburua lortzeko.

"Dantza berdina entseatzeko dugu urte osoan zehar, aldaketa batzuk egiten dizkiogun arren. Izan ere, gure helburua ez da dantza ezberdinak ikastea, dantza hori ahalik eta perfektuen

egitea baizik". Horixe erakusteko gogoz daude Iratxe eta bere taldekideak eta Gipuzkoan maila ona dagoela eta podiuma egitea oso zaila dela adierazi badute ere, emaitza ona lortzeko itxaropenez daude.

Gainera, larunbatekoarekin nahikoa ez eta gimnastek igan-

dean emanaldia eskainiko dute Andoingo Kirol Astearen baitan. Urtean zehar ikasitako guztia erakutsiko dute eta hamahiru urtetik gorakoek funky estiloko dantza bat ere egingo dute, gimnastika erritmikoko pausoak eta saltoak sartuta. Erakustaldia Allurralden izan-

*Igande honetan ikasturtean zehar ikasitakoaren erakustaldia eskainiko dute kiroldegian, 11:00etan hasita*

go da, igande honetan, goizeko 11:00tan eta ikasturtean zehar ikasitakoaren erakustaldia eskainiko dute.

**Maialen Arano** eta Iratxe Irastorza txikitatik hasi ziren gimnastika erritmikoan, eta gaur egun, oraindik ere buru-belarri horretan dabilta. "Ondo pasatzeko kirol bezala hasi ginen, baina denborarekin horrenbeste gustatu zaigunez, engantxatu egin garela eta, azkenean, txapelketetarako motibatu egin gara".

Oso kirol polita eta edonork egin dezakeena dela azaldu nahi izan dute, izan ere, askotan, aurreiritziengatik, malgutasun handiko pertsonentzat edo neskentzat soilik den ustea zabaldu da. "Kirol itxi bat bezala ikusten da, klubean gaudenok bakarrik praktikatzen dugun kirola bezala", dio Iratxek. Horregatik, jendeari kirola ezagutzeko, praktikatze eta jarraitze deia luzatu diete AKEK taldeko kideek.

# Txirrindularitza Kriteriuma, Batzokiaren eskutik



Txirrindularitza egokitutako kriteriuma jokatu zen Andoainean joan zen larunbatean. Batzokia elkartek antolatuta hamargarren aldiz ospatu zen, Ama Kandida etorbidean osa-

tutako ibilbidean zehar. Errepideko eta Erlojupeko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak jarri ziren jokoan. Hainbat modalitatetan neurtu zituzten indarrak parte hartzaileek; ho-

rien artean nazioartean txapelketak eta dominak irabazitakoak. Amador Granados, joan zen apirilean Mexikon urrezko domina lortu zuena ere bertan izan zen; munduko txapelke-



**Kirol egokituaren erreferentzia bilakatu da Andoingo proba, Andoingo Batzokiak antolatzen duena.**

**Hamargarren edizioan ere parte hartzea handia eta maila onekoa izan zen.**

tan lehiatu zen orduan, abiadura olinpikoko modalitatean.

Hauexek Bazkardon ospatu zen txapelketan irabazleak: Handbike mh2, Vitor Rotaru; Handbike mh3, Atanas Kiri-

lov; trizikloa, Aitor Oroza; tandem, Jon Estensoro eta Jose Mari Lekuona; bizikleta mc4, Guillermo Prieto; eta azkenik, bizikleta mc5, Joseba Txapartegi.





## Gomez Euskadiko onena



Urrietarrak txapela jantzi zuen.

Urrietako lasterketan Euskadiko txapelak jokoan ziren, emakumezko mailako txirindularitzan. Goi mailako lasterketa izan zen, onenak bertaratu baitziren. Lasterketak amaituta, sailkapen orokorrean **Ane Santesteban** nagusitu zen eta 23 urtez azpikoetan **Lierni Lekuona**.

Sailkapenak Urrietan:

Elite:

1. Alicia Gonzalez	Lointek
2. Belen Lopez	Lointek
3. Aida Nuño	Lointek
4. Ane Santesteban	Cipollini
5. Lierni Lekuona	Bizkaia

Junior:

1. Olatz Agorria	Beste Alde
2. Naia Leonet	Laguntasuna
3. Eider Unanue	Caja Rural

Kadete\*:

1. Irene Trabazo	Marin
2. Dolores Gomez	Caja Rural
3. Mirian Gardachal	El Caserio

\*Sailkapen orokorrean Nekane Gomez irabazle. Zorionak!

## Euskal Herriko finalera

Imanol Odriozola eta Inhar Oiarzabal Euskal Herriko txapelketarako finala jokatzeko sailkatu dira.

**Urnieta 40-17 Adurtza**

**Imanol Odriozola-Inhar Oiarzabal Kadeteak, trinketea.** Biak ere aurrelari eta atzelari lanetan bikain aritu ziren. Kadete mailako lehen urtean finalera sailkatzea lortu dute, biek ere duten mailaren adierazgarri. Gipuzkoako txapeldun badira, ea Euskal Herrikoa izatea lortzen duten.

**Asteburuko partidak**

Ekialde Txapelketa

**Ekainak 8, igandea. 10:15.**

Urnieta-Zumaia. Alebinak. Urnieta-Hernani. Kadeteak. Urnieta-Añorga. Seniorrak.

## Eskubaloian eta bizikleta gainean Gipuzkoako onenak



Jubenil eta kadete mailan emaitza onak lortu dituzte.

Leizaran taldeko jubenil mailakoek Aldundiko txapelketa irabazi dute, azken jardunaldian Allurralden Ordizia garaituz. Ikusle eta zaletuen laguntzarekin lortu zuten balentria hori, taldearen 35. urteurrena ospatzen denean. Denboraldiko azken partida izan zen, eta klubak denboraldiari amaiera emateko larunbat honetan klubaren eguna ospatuko du. Denboraldi amaiera honetan kadete taldeek ere emaitza bikainak eskuratu dituzte. Mutiletan Leizaran A txapeldun, eta Leizaran B txapeldun-orde. Nesketan Leizaran A eta D taldea bakoitza bere taldean ere txapeldun. Zorionak!



Joxe Barberena Andoaingo taldeko *alma mater*-ak poz bikoitza jaso du, egingo dioten omenaldiaren bezperan. Zorionak!

Kadete mailako sailkapena:

1. Andoaingo	35:17:70
2. Ulma	35:38:23
3. Irunes-Buruntzapzi	36:06:42

Jubenil mailako sailkapena:

1. Andoaingo	46:48:57
2. Laguntasuna	46:54:94
3. Fulgas	47:30:79

## Kirol Astea Andoainen

**Ekainak 5, osteguna**

**20:00** Kirol merezimenduari sari ekitaldia Basteron.

**Ekainak 6, ostirala**

**17:30** "Zer dakizu kirolaz?" sari-banaketa Allurralden.

**18:30** Judo erakustaldia Allurralden.

**Ekainak 7, larunbata**

**09:30** Kirol topaketak Goikoplazan: Pilota, eskubaloia, futbola, saskibaloia eta txirindularitza.

**10:30** Nordic Walking Goikoplazan.

**11:00** Golf jarduera Goikoplazan.

**Ekainak 8, igandea**

**11:00** Gimnasia erritmikoa, AKEK elkartearen eskutik Allurralden.

## Rafa Mendiluze gogoan



Real Sociedad taldean jokatu zuen Rafael Mendiluze Elizondo andoaindarra zendu zen aurreko ostiralean, 74 urte zituela. 1939ko uztailaren 31n jaio zen eta gaztetan Euskaldunarekin hasi ostean, Real Sociadarekin jokatu zuen. 1961tik 1973ra izan zen bertako jokalaria. 1965-1966 eta 1966-1967 denboraldietan bigarren mailan, eta gainerakoan lehen mailan. Erdilari zen, eta oso abila zen baloiarekin. "Irakasle" ezizena jarri zioten, fin-fina eta bizkorra zelako zelaian; bera izan ohi zen joko banatzailea erdigunean.

Nahiz eta jokalaria gisa erretiratu, entrenatzailea izan zen Relean. Realeko jubenilen mailako taldearekin, lehenbizi, eta Sanserekin ondoren; 1983-1985ean izan zen talde horren gidaria. Handik Irungo Real Unionera pasa zen.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

**ERROITZ**  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
**Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com  
www.aiurri.com  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04  
**ISSN:** 1698-4870  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.



# Agenda

EKAINAREN 5ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Zinema

**Andoain, Bastero**

■ “Tren de noche a Lisboa”.

Ekainak 7, larunbata.  
19:30 / 22:00.  
Ekainak 8, iganda.  
19:30.

Ekainak 9, astelehena.  
19:30 / 22:00.

■ Opera zinemaren: “Aida”, Giuseppe Verdi. 20:00.  
Denboraldiko azken saioa.  
Ekainak 11, asteazkena.

## Erakusketak

**Andoain, Bastero**

■ Pablo Donezar:  
“Hamsterra bere gurgilean”.  
Ekainaren 21a bitarte.

**Urnietan, Lekaio**

■ Argazki-rallyko argazkiak.  
Ekainak 10-13

## Beka

**Urnietan**

■ Deialdia Afrikako Wukron egonaldia egiteko.  
Argibideak: Jose Ramon Jauregi. 943 33 13 46.  
Epea: Ekainak 20.

## Entseguak

**Andoain**

■ Sanjuanetako Axeri Dantzaren entseguak ekainaren 5, 11, 13, 16 eta 19an.  
Ondarreta. 20:00.

## Bilera

**Andoain, Urigain**

■ Andoainen euskararen eguna antolatzen hasteko bilera. Udaleko euskara lantsailak deituta. 18:30.  
Ekainak 10, asteartea.

## Odol-emaileak

**Andoain**

■ 18:30-20:30.  
Anbulatorioa.  
Ekainak 10, asteartea.

## Deialdia

**Urnietan**

■ Ehiza baimena berritzeko datak Santa Krutz elkartearen. Epea: Ekainak 2-18  
Astelehenetan eta asteazketan, 18:00-19:30 artean.

**Andoain, Urigain**

■ Euskararen eguna antolatze-ko bilera deialdia. 18:30.  
Ekainak 10, asteartea.

## Ikastaroak

**Urnietan**

■ Saroben yoga, pilates eta gimnasia hipopresioa uztailean zehar.  
Argibideak: 5. orrialdea.

**Andoain, Urnietan**

■ Helduen hezkuntza eskolaren eskaintza berria.  
Argibideak: 5. orrialdea.

## Musika

**Andoain, Bastero**

■ Benito Lertxundi kantaria zuzenean arituko dira. 22:00. Auditorioa.  
Ekainak 7, larunbata.

## Bazkaria

**Andoain**

■ 1949an jaiotako bazkaria. Patxi: 606 927 468.  
13:30 Argazkia.  
14:30 Bazkaria.  
Ekainak 7, larunbata.

## Manifestazioa

**Tolosa**

■ TOPA osasun publikoaren aldeko taldeak deituta, arazoari konponbidea eskatzeko. 12:00. Trianguloa.  
Ekainak 7, larunbata.

## Aisialdia

**Urnietan**

■ Udaleku irekiak, Eguzkitan blai edota Kirol udalekue- tan izena emateko epea zabalik. Jarduerak uztailean zehar buruko dira.  
Izena emateko epea: Ekainak 6, ostirala.  
Bertan bulegoa, Lekaio.

**Andoain**

■ Gazte Lokalean Cup cake tailerra, jolasak.  
Ekainean zehar.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



**Andoni Rosco** Muñozek 3 urte bete zituen ekainaren 1ean. Zorionak etxeko piratarentzat!!! Aita, ama eta Irati.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Ekainaren 2an **Joxe Mari Ollakarizketak** urteak bete zituen. Aurten zenbaki borobila, 50 urte. Behar den bezala ospatzeko motibo gehiago. Urteaskoan Joxe Mari!!! Besarkada bero bat, etxekoak.

**ANDOAIN**


**ZORIONAK**



Ekainaren 2an **Mikelek** 18 urte bete zituen. Ez dira nahi orduko iritsi. Zorionak eta muxuak etxeko guztien partetik.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Ekainaren 6an **Korok** urteak beteko ditu. Orain arte bezain kementsua izaten jarrai ezazula. Ondo-ondo pasa! Muxuak!

**URNIETA**

Ama maitagarri, amona kuttun, etxeko zaindari, langile fin eta lagun atsegin. Milla Zorion! Lagun ibiltarriak ospatuko dinau!

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Maitzaren 28an **Oihana** etxeko printzesak 5 urte bete zituen. Milaka muxu erraldoi. Maite zaitugu bihotz! Etxekoak.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Ekainaren 5ean **Amets** 7 urte bete zituen. Zorionak aita-txo eta amatxoren partez eta muxu asko.

**ANDOAIN**

**ZORION AGURRAK**

diseinua@aiurri.com  
www.aiurri.com

## Andoainen euskararen eguna antolatzeko bilera

Udaleko euskara batzordeak udalealdia luzatu du: “Andoaingo kaleetan euskararen osasuna azkeneko boladan oso ondo ez dabilela-eta, jarrerak eta buruak astintze aldera, aurten Euskararen Egunaren inguruan zenbait ekintza antolatu nahi genituzke. Horretarako, dato-

ren ekainaren 10ean Urigain kultur etxean, arratsaldeko 18:30ean egingo den bilerara gonbidatzen ditugu interesa duten herritar oro, iritziak eta proposamenak ezagutzeko eta lantzeko, ea denon artean egitarau interesgarria lantzea lotzen dugun”.

Hizlariak: Bizibidaia Mikel Bringas eta Rosa Lizaso



**Nola antolatu zure oporrak bizikletaz**

**Ekainak 11, asteazkena  
19:00**

**Lekua: Gaztegune**



GazteguneUrnietan



Idiazabal, 13 / behea  
20130 Urnietan (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 333 973  
gazteinformazioa@urnieta.org